# ORDIZIA

ORDIZIAKO UDALA

*udal aldizkaria*

| Martxoa 2016 |

## ORDIZIAK **DU HITZA**



## ORDIZIA **DECIDE**


**03**
Datu ekonomikoak
Datos económicos

**11**
Zergatik galdeketa?
¿Por qué la consulta?

**12**
Hondakinen mahaia
*- Iritziak -*
Mesa de residuos
*- Opiniones -*


**#02**

# ZORIONAK ORDIZIARROI **HAU DA BIDEA !**

### GAIKAKO BILKETA TASAREN GARAPENA

Ordiziako etxeetako hondakinen bilketa eredua aukeratzeko herri galdeketa egitera goaz. Lehenengo lerro hauek Ordiziarrak zoriontzeko dira, emandako aurrerapausoa txalotuz.
Izan ere, Ordiziako hondakinen gaikako bilketa tasan azken lau urteetan eman den gorakada nabarmena da. 2012an %36eko tasa batetik 2015ean %73ra iritsi gara. 2012an edukiontzi berdea zegoen eta organikoa edukiontzi bidez biltzen zen, borondatezko bilketa bat zen. 2013ko uztailean atez ateko sistema ezarri zen eta tasan gorakada nabarmen bat ikusten da.
Azken 2 urte t´erdiko datuak ikusiz,

- 2013ko (uztailetik abendura arte) batezbestekoa: **%76**
- 2014ko batezbestekoa: **%76**. Bi hilabetetan **%79ra** iritsi zen (martxoa eta iraila).
- 2015eko batezbestekoa: **%73**.

Urte hauetako batezbestekoa: **%75**

### MURRIZPENA, BERRERABILPENA ETA BIRZIKLAPENA

Ordiziak lan fin bat egin du, beraz, birziklapena bultzatuz. Baina ez dugu alde batera utzi behar murrizpena eta berrerabilpena.
Murrizpen eta berrerabilpena lortzeko ekimenak bultzatu beharra daude. Ondorengo pausua hauen inguruko ekimenak martxan jartzea izango da.









**Auzo-konposta eta auto-konposta: organikoaren bilketa eta tratamendua ekidaten dira.**

**Compostaje colectivo y autocompostaje: Se evita la recogida y tratamiento del orgánico.**



**Pixoihal berrerabilgarriak.**

**Pañales reutilizables.**




**Erosketako poltsa berrerabilgarriak.**

**Bolsas de la compra reutilizables.**

# ZORIONAK ORDIZIARRAS, ¡**ÉSTE ES EL CAMINO**!

### DESARROLLO DE LA TASA DE RECOGIDA SELECTIVA

Vamos a llevar a cabo una consulta popular para la elección del modelo de recogida selectiva de residuos domésticos de Ordizia. Esta primeras líneas son para felicitar a las y los ordiziarras, para aplaudir la evolución que se ha dado.

No en vano,en esta evolución se plasma la subida que ha habido durante los últimos cuatro años en la tasa de recogida selectiva.   En el 2012 la tasa era del 36%, y en 2015 la tasa ha llegado al 73%. En 2012 existía el contenedor verde y el orgánico se recogía mediante contenedores, era una recogida voluntaria.  En julio de 2013 se fijó el sistema del puerta a puerta y la tasa aumentó significativamente.

Analizando los datos de estos dos años y medio,

- Media del 2013 (de julio a diciembre): **76%.**
- Media del 2014: **76%**. En dos meses llegó al **79%** (marzo y septiembre).
- Media del 2015: **73%.**

Media de estos años: **75%**

### REDUCCIÓN, REUTILIZACIÓN Y RECICLAJE.

Debemos fomentar iniciativas para lograr la reducción y la reutilización de los residuos.  El próximo paso sería poner en marcha iniciativas que tengan este fin.

# DATU EKONOMIKOAK
# DATOS ECONÓMICOS

Hondakinen kudeaketaren kostua hiru aldagaiek osatzen dute. Sarrera eta gastuen balantzean eragile nagusiak hauek dira: Bilketa zerbitzuen kostua; Tratamenduaren kostua; Diru sarrerak.
**Bilketa zerbitzuen kostua:** Hondakinen bilketa "UTE GOIERRI GARBIA"-k egiten du eta Ordizian honen kostua **724.584 €** da. Kostu honetatik atez ateko bilketari dagokiona (bilketan beste zerbitzu batzuk ere sartuta daude: poligonoetako eta merkatuetako bilketak, traste zaharrak,......) ondorengoa izango litzateke: 6 ekipok lan egiten dute. Kostua: **492.072 €.** Bilketaren kostuaren banaketan, atez atekoaren zatia **%68** batekoa da.
**Tratamenduaren kostua:** Gaika bereizten diren errefusa eta organikoa tratatu beharra daude eta ondorioz, frakzio hauen bilketaz gain kostu bat dakarte. Azken urteetako errefusaren kostua nahiko egonkorra izan da baina garestia da eta gaikako bilketa tasa handiak lortzen ez dituzten sistemak ekonomikoki bideraezinak bilakatzen dira. 2016ko datuen arabera, errefusak %20eko gorakada bat jasango du. Organikoaren kostua azken urteetan bonifikatua zegoen, baina 2016an %68ko gorakada bat izan du. Kostu honek tratamenduak dakartzan gastu guztiak ez ditu estaltzen, oraindik bonifikatua jarraitzen du.

**Ordiziako datuak aztertuz:**
**•709 tona errefusa: 709 tona * 173,12 €/tona= 122.742,08 €**
**•928 tona organiko: 928 tona * 121,19 €/tona= 112.464,32 €**
Honekin, gaikako bilketaren garrantzia ikusten dugu. Gaika bereiztu beharrean dena errefusara botatzen badugu ordaindu beharreko diru kantitatea oso handia da. Organikoaren bilketa onena konpostatzen dena da (auzokonposta eta autokonposta), ez baita biltzen ezta ere tratatzen. Konposta bultzatzeak ingurumen onuraz gain, onura ekonomikoak dakartza. Gaur egun, Sasietako ordainketan udalerri bakoitzak sortutako errefusaren eta organikoaren arabera ordaintzen da.
**Birziklatzearen diru-sarrerak:** Gaika bereizten diren frakzioen salmentagatik lortzen den diru-sarrera da. Garrantzitsuenak hauek dira:

- Legorretako Saica Natur enpresa: Papera eta kartoia
- Ecoembes:
  - » Papera eta kartoia
  - » Ontzi arinak

Ordiziak urtean 213.748,00 € jasotzen ditu, gaur egungo bilketaren kostuaren %29,5a. Ekonomikoki oso garrantzitsua da, diru-sarrera sortzeaz gain, tratamenduaren atalean ere murrizten duelako, ez badugu gaika sailkatzen tratatu egin behar delako.
**BALANTZEA:** Hiru kontzeptu hauek aztertuz, Ordiziari dagokion balantzea eta Sasietako Mankomunitatearen batezbestekoarekin (70.000 biztanle) alderatuz:

| | BILKETA<br>RECOGIDA | TRATAMENDUA<br>TRATAMIENTO | DIRU-SARRERA<br>INGRESOS | BALANTZEA<br>BALANCE |
|---|---|---|---|---|
| Ordizia | 73,9 €/biztanle-habitante | 24,4 €/biztanle-habitante | 19,4 €/biztanle-habitante | 96,5 €/biztanle-habitante |
| Sasieta | 53 €/biztanle-habitante | 29,7 €/biztanle-habitante | 15,4 €/biztanle-habitante | 85,2 €/biztanle-habitante |

Ordiziako gaur egungo bilketa garestiagoa da, tratamendua merkeagoa eta diru-sarrera handiagoak lortzen dira. Gaikako bilketa nahiko ondo egiten du, tratamendu kostu txikiagoak edukiz eta gaika frakzio gehiago bereizten duenez diru-sarrera handiagoak ditu.

El sistema actual de recogida de Ordizia es más caro, el tratamiento es más barato y se obtienen más ingresos. Realiza bastante bien la recogida selectiva, gastando menos en tratamiento y obteniendo más ingresos al separar más fracciones.

En la gestión de residuos el gasto lo componen tres factores: Éstos son los factores que influyen en el balance de ingresos y gastos: Gasto de servicios de recogida; Gasto del tratamiento; Ingresos.
**Gasto de servicios de recogida:** "UTE GOIERRI GARBIA" se encarga de la recogida de los residuos y el gasto de Ordizia es de 724.584 €. Dentro de este gasto lo que le correspondería a la recogida del puerta a puerta (se incluyen otros servicios en la recogida: recogida en polígonos y ferias, trastos viejos...) sería el siguiente: Trabajan 6 equipos. Gasto: 492.072 €. En el reparto del gasto de recogida, la parte del puerta a puerta sería aproximadamente del 68%.
**Gasto del tratamiento:** Se deben tratar el rechazo y el orgánico recogidos selectivamente, y en consecuencia, además de la recogida, el tratamiento de estas fracciones conlleva un gasto. El gasto del rechazo de estos últimos años ha sido bastante estable, pero es muy caro, y los sistemas que no logran tasas representativas de recogida selectiva llegan a ser económicamente inviables. Según los datos del 2016, el rechazo se incrementará en un 20%. El gasto del orgánico obtenía bonificaciones en los últimos años, pero en el 2016 ha subido en un 68%. Este gasto no cubre todos los gastos que ocasiona el tratamiento, aún sigue bonificado.
**Analizando los datos de Ordizia:**
**• 709 T de rechazo: 709 T * 173,12 €/tonelada= 122.742,08 €**
**• 928T de orgánico: 928 T * 121,19 €/tonelada= 112.464,32 €**
Esto nos demuestra la importancia de la recogida selectiva. Si no realizamos la recogida selectiva y echamos todo al rechazo, la cantidad a pagar es muy grande. El mejor sistema de recogida del orgánico es el del compostaje (compostaje comunitario y autocompostaje), porque no se recoge ni tampoco se trata.
Si se fomenta el compostaje, además de obtener benefinicios medioambientales se obtendrán también beneficios económicos. Hoy en día, en el pago que se le realiza a Sasieta, cada municipio abona según la cantidad de rechazo y orgánico que produce.
**Ingresos del reciclaje:** Es el ingreso que se obtiene por la venta de las fracciones que se obtienen selectivamente. Los principales son los siguientes:

- Empresa Saica Natur de Legorreta: Papel y cartón.
- Ecoembes:
  - » Papel y cartón.
  - » Envases ligeros

Ordizia obtiene 213.748,00 € anuales, el 29,5% del gasto actual de recogida. Económicamente es muy importante, porque además de crear ingresos se reduce el gasto correspondiente al tratamiento, y si no clasificamos el residuo selectivamente hay que tratarlo.
Tal y como se puede comprobar en la tabla de arriba; el sistema actual de recogida de Ordizia es más caro, el tratamiento es más barato y se obtienen más ingresos. Realiza bastante bien la recogida selectiva, gastando menos en tratamiento y obteniendo más ingresos al separar más fracciones.



# ZERGATIK GALDEKETA?

## ABIAPUNTUA

Hondakinen kudeaketa eta zehazki bilketaren inguruan KEZKA.

Talde politikoen arteko ADOSTASUNA bilketa eredua galdeketa bidez aukeratzeko.

Galdeketa antolatzeko HONDAKIN MAHAIAREN eraketa. Mahai honen helburua, azterketa tekniko objetiboetatik ondorioak atera eta informazio zuzena eta gardena herritarrei helaraztea izan da, galdeketarako beharrezko informazioa izan dezaten.

## HONDAKIN MAHAIA

Honakoek osatzen dute: talde politikoek (EAJ-PNV, BILDU, ORDIZIA ORAIN, PSE, IRABAZI); Landarlan Ingurumen elkartea; Ordiziko zabor bilketaren inguruan sortutako Herri Ekimena edo plataforma eta zozketaz hautatutako lau herritar (2 emakume eta 2 gizonezko).
Mahaiak zazpi bilera ospatu ditu, 20 orduko lanketa burututz, galdeketarako komunikazio kanpaina, galdera bera eta prozedura adosteko.

## ETA HEMEN ADOSTUTAKOAK:

- Etxeetako hondakinen bilketaren inguruko galdeketa izatea.
- Merkataritza eta ostalaritzan gaur egungo bilketa sistema erabiliko da, hobekuntzekin.
- Gaikako bilketa gutxieneko tasa %75ekoa izatea.
- Helburua %85eko gaikako bilketa tasa batetara iristea.
- Gaikako bilketa sistemaren jarraipena egingo da.
- Helburua lortzen ez bada hobekuntza neurriak hartuko dira.
- Galdeketan bilketa eredu bi aurkeztea adostu da.
- Ezartzen den bilketa ereduan egutegi bat finkatuko da.
- Galdeketako galdera eta prozedura adostea.

# ¿POR QUÉ LA CONSULTA?

## PUNTO DE PARTIDA

PREOCUPACIÓN por la gestión de los residuos y, en concreto, por la recogida.

ACUERDO entre los grupos políticos por elegir el sistema de recogida mediante consulta.

Constitución de la MESA DE RESIDUOS para organizar la consulta. El objetivo de la misma ha sido sacar conclusiones del análisis técnico objetivo y hacer llegar a la ciudadanía información directa y transparente para tener la información necesaria para la consulta.

## MESA DE RESIDUOS

La componen: los grupos políticos (EAJ-PNV, BILDU, ORDIZIA ORAIN, PSE, IRABAZI); la asociación de Medio Ambiente Landarlan, la plataforma ciudadana de Ordizia surgida en torno a la recogida de residuos y cuatro personas voluntarias de Ordizia elegidas por sorteo (2 mujeres y 2 hombres).
Se han organizado siete reuniones e invertido 20 horas en las que se han acordado la campaña de comunicación para la consulta, la pregunta en sí y el procedimiento.

## ACUERDOS ADOPTADOS:

- Que sea una consulta sobre la recogida de residuos domésticos
- Utilizar el actual sistema de recogida en el comercio y la hostelería, con mejorías.
- Que la tasa de recogida selectiva mínima sea del 75%.
- Que el objetivo de recogida selectiva sea llegar a la tasa del 85%.
- Se hará un seguimiento de la recogida selectiva.
- Si no se logra el objetivo, se tomarán medidas de mejora.
- Se acuerda presentar en la consulta dos modelos de recogida.
- Se fijará un calendario en el modelo de recogida que se implante.
- Acordar la pregunta y el procedimiento de la consulta.

## EDUKIONTZI KOLEKTIBOEN SISTEMA
### SISTEMA DE CONTENEDORES COLECTIVOS.

Errefusa eta organikoa chip-a duten edukiontzi itxietan eta gainerako frakzioak edukiontzi kolektiboetan.

Rechazo y orgánico en contenedores cerrados que tengan chip y las demás fracciones en contenedores colectivos.




**URTEKO KOSTUA:**
**COSTE ANUAL:** **555.874,35 €**




Edukiontzi grisan errefusa biltzen da eta edukiontzi hau astean bitan irekita izango da egun osoan zehar bakoitzak izango duen txartel batekin.

En el contenedor gris se recoge el rechazo y este contenedor estará abierto dos veces a la semana durante todo el día mediante una tarjeta que tendrá cada uno/a.




Edukiontzi marroian organikoa biltzen da eta 7 egunetan izango da zabaltzeko moduan bakoitzak izango duen txartel batekin.

Edukiontzien bilketan organikoak kalitate ona (%5eko inpropioak)

En el contenedor marrón se recoge el orgánico y estará abierto los 7 días de la semana mediante una tarjeta que tendrá cada uno/a. En la recogida de contenedores la calidad del orgánico es buena (5% de impropios)

## BILKETA SISTEMA MISTOA
### SISTEMA MIXTO DE RECOGIDA

Errefusa eta organikoa atez ate, eta gainontzeko frakzioak edukiontzi kolektiboetan.

Rechazo y orgánico puerta a puerta y demás fracciones en contenedores colectivos.



**URTEKO KOSTUA:**
**COSTE ANUAL:** **705.345,37 €**



Errefusa atez ate bilduko da eta hau astean behin aterako da.

Se recogerá el rechazo puerta a puerta y se sacará una vez a la semana.



Organikoa atez ate bilduko da eta hau astean hirutan aterako da.

Atez ateko bilketan organikoak kalitate ona (%3ko inpropioak)

Se recogerá el orgánico puerta a puerta y se podrá sacar tres veces a la semana.

En la recogida del puerta a puerta el orgánico es de buena calidad (3% impropio)




## EDOZEIN DELA AUKERATZEN DEN BILKETA EREDUA:

**Pixoihalentzako edukiontzi bereziak** jarriko dira. Ez da konpresa eta tanpoientzat. Ezta errefusarentzat ere. Beharra duenari txartelak egunero irekiko dio.

## CUALQUIERA QUE SEA EL SISTEMA ELEGIDO:

Se colocarán **contenedores especiales para pañales**. No son para compresas o tampones. Ni para el rechazo. La persona que lo necesite, lo podrá abrir diariamente.

## JOSE MIGUEL SANTAMARIA (alkatea – alcalde)



Eztabaida asko sortu duen gai baten inguruan kokatzeko aukera dugu. Herritarrek erabakiko dute Ordiziarako ze zabor bilketa sistema nahi duten. Nik argi daukat, alkate eta bizilagun bezala, konprometitzea eta zaborrak ahalik eta gehien bereiztea funtsezkoa dela. Horrela bultzatuko dugu jasangarritasuna, ingurumen, gizarte eta ekonomia ikuspegietatik. Bi sistemen artean aukera dezakegu: sistema mistoa atez atekoarekin edo txip-dun edukiontzien sistema. Ze nahiago dugun erabakitzeko momentua eta, lehenengo aldiz, egiteko aukera dugu.

Tenemos la oportunidad de posicionarnos ante una cuestión que ha generado mucho debate. La ciudadanía va a decidir qué tipo de recogida de residuos prefiere para Ordizia. Tengo claro, como alcalde y como vecino, que es fundamental comprometerse y separar selectivamente al máximo. Así potenciamos la sostenibilidad ambiental, social y económica. Podemos optar por dos sistemas: el mixto con PaP o los contenedores con chip. Es el momento de decidir qué preferimos y tenemos, por primera vez, la ocasión de hacerlo.

## EMI ROMÁN (herritarra – ciudadana)



Hondakinen mahaian parte hartu nuen aurreko udal gobernuak gaizki landutako gaia zelako eta hauteskundeak eta gero konpondu behar zelako. Nik bozkatzeko aukera izatea eskatzen nuenetako bat naiz eta horregatik balorean jartzen dut politiko eta herritarren artean konpromisoak adostu eta hartu izana. Hori da bidea. Pozik nago Ordiziak erabaki eta birziklatu egingo duelako. Ikasi dezagun honetaz, aukera aprobetxatu eta ahal dugunez, bozka dezagun.

Participé en la mesa de residuos porque fue un tema maltratado por el anterior gobierno local y después de las elecciones había que resolverlo. Yo era una más que pedía votar y por ello pongo el valor que entre políticos y ciudadanos hayamos acordado, consensuado y tomado compromisos. Es el camino. Soy feliz porque Ordizia decidirá y reciclará. Aprendamos la lección, aprovechemos la oportunidad y ahora que podemos, votemos.

## CARLOS GONZALEZ ASTIZ (IRABAZI ORDIZIA)




Ordiziak zaborren inguruan erabaki egin nahi zuen eta erabaki egingo du. Konkistatu egin du, lortutako gaikako bilketa tasa altuagatik eta gobernatzaileek erabakitzeko herritarrengan konfiantza izateko exijitzen zuelako. IRABAZI-k herritarrak, Hondakinen Mahaia eta alderdi politikoak zoriondu nahi ditu kontsulta egiteagatik, historikoa eta adostua. Hiru ideien inguruan oinarritutako bi eredu eraginkorren artean aukeratuko da. Hiru ideiak hauek dira: Herriaren botera, aurrezpena Atez Atekoarekin alderatuta eta denok birziklatzen segitzeko esfortzua.

Ordizia quería decidir y decidirá sobre las basuras. Lo ha conquistado por la alta tasa de recogida selectiva alcanzada y porque exigía a los gobernantes que confiasen en el pueblo para decidir. IRABAZI felicita a la ciudadanía, Mesa de Residuos y partidos por ir a una consulta, histórica, consensuada, que optará entre dos sistemas eficaces sobre tres ideas fundamentales: El poder para el Pueblo, ahorrar con respecto al PaP y seguir esforzándonos en el reciclaje .

## ANGELICA MORENO (EAJ-PNV)



Ordiziarrok zabor bilketarako sistema egokiena aukeratu ahal izango dugu demokratikoki martxoaren 13an, behingoz. Faktore desberdinak hartu behar dira kontutan ereduaren egokitasuna neurtzeko: ingurumen emaitzak eta bereizitako bilketaren kontrastatutako portzentajeak; ekonomia eta kosteak; pertsonekiko erosotasun eta malgutasuna; eta gizartearen onespena. Horren baitan egin behar da aukeraketa.

Por fin los y las Ordiziarras vamos a poder elegir democráticamente el sistema más adecuado para la recogida selectiva de residuos el día 13 de Marzo. A la hora de valorar la idoneidad del modelo debemos tener en cuenta diversos factores: los resultados medioambientales y porcentajes de recogida selectiva contrastados; la economía y los costes; la comodidad y flexibilidad hacia las personas; y la aceptación social. Y actuar en consecuencia.

## ADUR EZENARRO (BILDU)

Atez atekoaren lorpenak gutxienekotzat hartuz (%75eko tasa eta sailkatzea borondatezkoa ez izatea) Hondakinen Mahaiak, adostasunez, etxeetako hondakinen bilketarako bozketa egitea eta merkataritzan atez atekoa mantentzea erabaki du. Udalak jarraipena egin eta neurri zuzentzaileak ezarriko ditu helburuak bete ezean. Herritarrek erabakiko dute zein aukerak biltzen dituen abantaila gehien, zein den orekatuagoa, zeinek sortzen dituen lanpostuak, zein den garbiagoa, zein dagoen gertuago, aparkalekuak galtzen ote diren, kiratsa sortuko ote den...

Partiendo de los mínimos logrados por el puerta a puerta (tasa del 75% y selección no voluntaria) la Mesa de Residuos ha acordado realizar la consulta sobre la recogida de residuos domésticos y mantener el puerta a puerta en el comercio. El Ayuntamiento realizará el seguimiento e implantará medidas correctoras si no se consiguen los objetivos. La ciudadanía decidirá qué opción es más ventajosa, cuál más equilibrada, si genera puestos de trabajo, cuál es más limpio, cuál es más cercano, si se pierden plazas de aparcamiento, si se generarán malos olores...

## EÑAUT AGIRRE (herritarra – ciudadano)



Ordiziarrok azken hiruzpalau urteotan argi erakutsi dugu gauzak ongi egiteko gaitasuna izan badugula. Zenbaiten jarrerak giroa zapuztu du, ordea, sistemari helburuari baino garrantzia handiagoa emateraino. Parte hartze prozesu honek denok helburu beraren alde egiten hasteko balio behar du. Sistemak makulua izan behar du, ongi erabiliko dugun makulua, gauzak hobekiago egiteko. Gipuzkoarrok hondakinen arazoari irtenbide errazagoa topatzeko, errauskailuak justifikaziorik izan ez dezan. Esan bezala, gaitasuna izan, badugu.

Los y las ordiziarras hemos demostrado estos últimos tres-cuatro años que somos capaces de hacer las cosas bien. Sin embargo, la actitud de algunos ha estropeado el ambiente al dar más importancia al sistema que al objetivo. Este proceso participativo debe servir para que todos nos encaminemos hacia el mismo objetivo. El sistema debe ser la muleta, una muleta que utilizaremos bien, para hacer las cosas mejor. Para que la ciudadanía de Gipuzkoa encuentre una solución más fácil al problema de los residuos, y que la incineradora no tenga justificación. Como he dicho, capacidad sí que tenemos.

## JUAN IGNACIO ALONSO (ORDIZIA ORAIN)

Esfortzuak batzeko garaia da. Mahaia sortzea gatazkak konpontzeko mugarria izanda. Hori da bidea, eta ez besterik: aniztasunari errespetua, gardentasuna eta parte-hartzea. Bilketa sistema bitartekoa da, garrantzitsua ingurumena da. Herria sentikorra eta arduratsua izan behar du. Proiektu honek herritarren parte hartzerik gabe ez du zentzurik. Sistemarekin ados egon ala ez, arduragatik, kalitatezko %85eko bilketa lortzera behartuta gaude, frakzio guztietan. Hondakin hoberena sortzen ez dena da. Birziklatzen baduzu: ingurumena errespetatzen duzu. Etorkizuneko belaunaldiekin arduraz jokatzen duzu eta kostua murrizten duzu.

Toca aunar esfuerzos. La creación de la Mesa es un hito en la forma de resolver los conflictos. Esta es la via y no otra: respeto a la diversidad, transparencia y participación. El sistema de recogida es el medio. Lo importante es el medio ambiente. La ciudadania ha de ser sensible y responsable. Este proyecto no tiene sentido sin la participación ciudadana. Estemos o no de acuerdo con el sistema, por responsabilidad, estamos obligados a alcanzar un 85% de recogida de calidad, en todas las fracciones. El mejor residuo es el que no se genera. Si reciclas: respetas el medio ambiente. Te responsabilizas con las generaciones venideras y reduces el costo.

## IÑAKI DUBREUIL (PSE-PSOE)

Ordiziako sozialistok zabor bilketa sistema eraginkorra, efizientea, erosoa eta herritarren artean erabakitakoa defendatzen dugu, ez inposatutakoa. Horregatik babestuko dugu edukiontzi kolektiboen bidezko sistema.

Los y las socialistas de Ordizia defendemos un sistema de recogida de basura eficaz, eficiente, cómodo y decidido por la ciudadanía, no impuesto. Por eso apoyaremos la alternativa del sistema de contenedores colectivos.

## EDURNE HUESA (LANDARLAN Ingurumen Elk.)

Sistema mistoa bai, Zergatik? Goierriko hondakinen gaikako bilketa tasarik altuenen lorpena (%84-%90), hondakin organikoen kalitate oso ona, lanpostu gehiago mantentzea, ingurumen ardura, jadanik hartutako ohiturak, hezkuntza eta jarraipen ekintza zuzenak ahalbidetzea, hondakinen murrizpena bultzatzea, jasangarritasun ekonomikoa, atez ateko inbertsioaren amortizazioa, guztion osasuna.

Sistema mixto sí, ¿Por qué? Logro de las tasas más altas de recogida selectiva (84%-90%), calidad muy buena de residuos orgánicos, mantenimiento de más puestos de trabajo, responsabilidad ambiental, costumbres adquiridas, acciones educativas y de seguimiento específicas, reducción de residuos, sostenibilidad económica, amortización de la inversión realizada con el puerta a puerta, salud.

## NEKANE APAOLAZA (herritarra – ciudadana)



Bildu, Bereizi, Birziklatu! Gaikako hondakinen bilketa, geure ingurumenari behin betiko egin diezaiokezun ekarpenik osasuntsuena delako. Baita Euskal Herri kutsatu gabea eraikitzeko ere. Ezinbestekoa izango da hemendik aurrera gai honi jarraipen zorrotza ematea, asko dagoelako egiteko gure lurraren iraupen jatorrerako.

Recoger, Seleccionar, Reciclar! Porque la recogida selectiva es la aportación más saludable que le podemos hacer al medio ambiente. También para construir una Euskal Herria no contaminada. Será imprescindible hacer un seguimiento riguroso, porque queda mucho por hacer a favor de la conservación sostenible de la tierra.

## PATXI ARROSPIDE (ciudadano – herritarra)



Sei bilera, asanblada bat eta auzoz auzo bilerak egin ondoren, ordiziarrok zaborrarekin zer egin aukeratzeko ordua iritsi da. Gure esku dago orain arte egin dugunetik gora egiteko aukera. Hemendik aurrera ez du balioko esaten ziren gauzak esatea, orain denok aukeratuko dugu eta nola egin bilketa. Badakit aldaketa guztiak zailak direla baina esfortzu pixka batekin lortuko dugu ohituta gaudelako. Aldez aurretik, eskerrik asko.

Ante la oportunidad que tengo de participar en la mesa de residuos quiero destacar el trabajo realizado para llegar a un consenso sobre la pregunta a realizar en la consulta. Después de muchas conversaciones se ha decidido dar a elegir entre dos formas de recogida. Los ordiziarras vamos a tener la obligación de superar el 75 % actual. No parece difícil, porque estamos acostumbrados a separar los distintos materiales.

## JOSÉ Mª GÓMEZ (Herri plataforma)



Askok uste genuen gehiago eta hobeto birziklatzea posible zela eta, bi urte geroago, seguru gaude. Denon onurarako delako, orain arte lortutako maila hobetu behar dugu eta horretarako izango dugu sistema eraginkorragoa, merkeagoa eta errazagoa. Konbentzituta gaude hilaren 13an Ordizia bere eskubidea erabiliko duela, 2013an egin zuen bezalaxe. Oraingoan bai, ordea, gehiengoak erabakitakoa egingo delako bermearekin.

Muchos pensábamos que se podía reciclar más y mejor y, después de dos años, estamos convencidos. Por el bien común, tenemos que mejorar los niveles conseguidos hasta ahora y para ello contaremos con un sistema más eficiente, más fácil y más barato. Estamos convencidos que el próximo día 13 Ordizia ejercerá su derecho, al igual que en el 2013. Con la garantía, esta vez sí, de que luego se hará lo que la mayoría decida.

# GALDERA ETA PROZEDURA

## Zein da galdera?

Ordiziako herritarrek, etxebizitzetako hondakinen bilketaren inguruan bere iritzia eman eta erabaki nahi dute. Ordiziak batazbesteko %75eko gaikako bilketa batekin (zaborretara botatzen dugunetik errefusa ez diren gainerako frakzio guztiak bereizita) birziklatzen du gaur egun. Herri-galdeketa honetan proposatzen diren edozein aukeretatik eratorriko den emaitzak birziklatze-tasa hori bermatuko du, guztion ahalegin eta erantzukizunez %85a lortzeko helburuarekin. Herri-galdeketaren emaitzaren ondorioz etxebizitzetako hondakinak biltzeko egutegi bat ezarriko da, eta etengabeko jarraipena burutuko da birziklatze tasa eta jasotako hondakinen kalitatearen inguruan, hala balegokio, beharrezkoak diren hobekuntza neurriak hartuz, ingurumen iraunkortasun irizpideen arabera.

**Ordizian gaikako ze hondakinen bilketa sistema erabili behar dela uste duzu?**

- ☐ **BILKETA SISTEMA MISTOA. Errefusa eta organikoa atez ate, eta gainontzeko frakzioak edukiontzi kolektiboetan.**
- ☐ **EDUKIONTZI KOLEKTIBOEN SISTEMA. Errefusa eta organikoa chip-a duten edukiontzi itxietan eta gainerako frakzioak edukiontzi kolektiboetan.**

## Nork bozkatu dezake?

• 16 urtetik gorako pertsonek (bozketa hasterako urte horiek beteak badituzte).
• Erroldaturik daudenak galdeketa egunean edo aurretik.

## Bozketa eguna

EGUNA: 2016ko martxoaren 13an
ORDUA: 9:00etatik 20:00etara
Lekua: 4 mahai (Institutoa - Urdaneta ikastetxea - Lukusain - Udaletxea)

## Bozketa moduak

**• AURRETIAZKO BOZKA:**
- Egunak: martxoak 9tik 11ra
- Ordua eta lekua: 9:00-15:00 (arreta bulegoan)
  15:30-20:30 (udaltzaingoan)

**• BOZKA EZ-PRESENTZIALA**
- Eskaera Udal web orrian banner baten bidez edo telefono bidez. MARTXOAK 4 arte.

**• POSTA ZIURTATUZ**
- MARTXOAK 9 arte.

**• MUGIKORTASUN MURRITZA DUTENEN BOZKA**
- Eskaera arreta bulegoan edo telefono bidez.
- Udal langilea etxera bozka bila (9:00-15:00). Egunak: martxoak 9tik 11era

# PREGUNTA Y PROCEDIMIENTO

## ¿Cuál es la pregunta?

La ciudadanía Ordiziarra desea opinar y decidir sobre el asunto de la recogida de los residuos domésticos. Ordizia contribuye al reciclaje con una tasa de recogida selectiva media del 75% actualmente (separando todas las fracciones de la basura de la fracción resto/rechazo). Esta tasa de reciclaje se garantizará con cualquier resultado de los supuestos de esta consulta y con la intención de alcanzar el objetivo del 85% con el esfuerzo y responsabilidad de todas y todos. Como resultado de la consulta se establecerá un calendario de recogida de residuos domésticos y se hará un seguimiento constante de la tasa y de la calidad de los residuos, adoptando, en su caso, las medidas de mejora necesarias según criterios de sostenibilidad ambiental.

**¿Qué sistema de recogida selectiva de residuos considera que debe utilizarse en Ordizia?**

- ☐ SISTEMA MIXTO DE RECOGIDA. **Rechazo y orgánico puerta a puerta y demás fracciones en contenedores colectivos.**
- ☐ SISTEMA DE CONTENEDORES COLECTIVOS. **Rechazo y orgánico en contenedores cerrados que tengan chip y las demás fracciones en contenedores colectivos.**

## ¿Quiénes pueden votar?

• Las personas mayores de 16 años (si los han cumplido en el momento de inicio de la votación).
• Las personas empadronadas antes del día o del mismo día de la consulta.

## Día de la votación.

FECHA: 13 de marzo de 2016
HORA: De 9:00h. a 20:00h.
Lugar: 4 mesas. (Instituto - Urdaneta ikastetxea - Lukusain - Ayuntamiento)

## Formas de votación

**• VOTO ANTICIPADO:**
- Días: Del 9 al 11 de marzo.
- Hora y lugar: 9:00-15:00 (en la oficina de atención).
  15:30-20:30 (policía municipal).

**• VOTO NO-PRESENCIAL**
- Solicitud en la página web del Ayuntamiento mediante banner o teléfono. Hasta el 4 de MARZO

**• MEDIANTE CORREO CERTIFICADO.**
- Hasta el 9 de MARZO

**• VOTO DE PERSONAS IMPEDIDAS**
- Solicitud en oficina de atención o mediante teléfono.
- Trabajador/a municipal a casa a recoger el voto (9:00-15:00). Días: Del 9 al 11 de marzo.